LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

# 2019ko AUZO BATZARRAK

# ASAMBLEAS DE BARRIO 2019

**Auzoa** / Barrio: **Latiorro**
**Data** / Fecha: **2019/11/27**
**Ordua** / Hora: **18:30 – 20:00**
**Lekua** / Lugar: **Latiorro ikastetxea**

---

**Bertaratutako ordezkari politikoak** / Asistentes en representación política**:**

- Ander Añibarro (EAJ-PNV)
- Maite Cortázar (EAJ-PNV)
- Ander Larrinaga (EAJ-PNV)
- Nagore Gomara (EH Bildu)
- Jakinda Artaraz (OMNIA) – publikoarekin batera / entre el público

**Bertaratutako udaleko ordezkari teknikoak** / Asistentes en representación técnica del Ayuntamiento**:**

- Asier Goikouria (Obra eta Zerbitzuetako jarduneko burua / Jefe de Obras y Servicios en funciones)
- Joseba Solaun (Obretako arduraduna / Encargado de Obras)
- Almudena Fernández (Udal arkitektoa / Arquitecta municipal)

---

**Gai-zerrenda /** Orden del día**:**

| | |
|---|---|
| 1. 2019-2023 Legegintzaldirako Planaren aurkezpena eta bideratu beharreko proiektu nagusiak<br>2. Parte hartzeko formulak azaltzea eta auzoko zinegotziaren figura aurkeztea<br>3. Galderak | 1. Presentación del Plan de Legislatura 2019-2023 y proyectos clave a desarrollar<br>2. Presentación de fórmulas de participación y de la figura de Concejal/a de barrio<br>3. Preguntas |

**Edukia /** Contenido:

| | |
|---|---|
| 1. Auzoko gizon batek adierazi duenez, Latiorroko saneamendu-sareak berritzeko plan bat dago. Galdetu du nola egingo den eta ea planteatu den abandonatuta sentitzen | 1. Vecino comenta que ha leído que hay un plan para la mejora de redes de saneamiento en Latiorro. Pregunta cómo se va a hacer y si se plantea que se extienda a |

| | |
|---|---|
| diren beste auzo edo zonalde batzuetara hedatzea. Halaber, galdetu egin dute kaleko zoladura altxatu beharko ote den, izan ere, esan du proiektua irakurri zuenean Kamarakan proiektu bat egitea proposatu ziola auzoko zinegotziari, zoladura altxatu beharra aprobetxatuz. | otros barrios o zonas que se sienten abandonados. Preguntan si hay que levantar la calle ya que el vecino dice que al leer el proyecto propuso a su concejala de barrio un proyecto en Kamaraka aprovechando que se levanta la calle. |
| • Erantzun zaio Latiorrondo eta Arantzar egikarituko direla, diru-laguntza dagoelako. Adierazi da kale bat baino gehiago hartuko dutela barne berritze-lanek. Funtsean, ura hornitzeko sarean egingo dira lanak, baina saneamendurako sarean ere egingo da zerbait. Zanga luzeetan altxatuko da, galtzadaren zati batean eta espaloiaren zati batean. Udalera gerturatzeko iradoki zaio, proiektua eta esku hartzeko eremuak zehatz-mehatz aztertzeko. | • Se responde que se hará Latiorrondo y Arantzar, porque hay una subvención. Se dice que va a ser una renovación que abarca varias calles y es fundamentalmente para la red de abastecimiento de agua, aunque hay parte también para saneamiento. Se levanta en zanjas lineales, y se levantara en parte calzada y en parte acera. Se ofrece que se acerque al Ayuntamiento para ver el proyecto en detalle y las zonas donde se actuará. |
| 2. Auzoko gizon batek esan duenez, azken euriteetan olioz beteta zetorren ura; galdetu du ea noiz egingo den araztegia. | 2. Vecino dice que con las últimas lluvias vio que el agua bajaba muy sucia con aceite; pregunta para cuando se hará la depuradora. |
| • Erantzun zaio orain hodi biltzaileak lizitatzen ari direla, estatuaren eskumena dela eta horren ostean ekingo zaiola araztegiak egiteari. URA Agentziak eta Gobernuak adierazi dute egin beharra dutela, zigor-espediente bat dagoelako. Aurreikuspenen arabera, 2021ean edo 2022an hasiko dira eraikitzen. Olio-isuria ibaian gorago izan zen ez zen Laudion izan. | • Se le dice que ahora están licitándose los colectores, que lo hace el Estado, y posteriormente se empezará con las depuradoras. Desde ura y el gobierno nos han trasladado que tienen que hacerlo, ya que tienen un expediente sancionador. La estimación es 2021-2022 para el inicio de la construcción. El vertido de aceite venía de aguas arriba, no proviene de Laudio. |
| 3. Auzoko gizon batek esan du euriteekin ura beltz etorri izan dela, eta susmoa agertu du isuria Tubacex eta Tubos Reunidos enpresetatik ez ote datorren. Bere ustez, Osalan erakundeak esku hartu beharko luke, euren hondakinak biltzera behartzeko, eta erantsi du lehentasuna izan beharko lukeela horrek. Halaber, galdetu du araztegia non ipiniko den. | 3. Vecino dice que con la lluvia el agua ha bajado negra y apunta a que esto proviene de Tubacex y Tubos Reunidos. Considera que debería intervenir Osalan para obligarles a recoger sus residuos, y que esto debería ser una prioridad. Asimismo, pregunta dónde irá la depuradora. |
| • Isuriei dagokienez, gogora ekarri da aurten onetsi dela isurketei buruzko Laudioko ordenantza berria, eta ordenantzak behartu egiten dituela enpresak haien isurketak kontrolatzeko sistemen hobekuntzan inbertitzera. Enpresek epe bat dute ordenantzara moldatzeko. | • Respecto a los vertidos, se recuerda que este año se aprobó la nueva ordenanza de vertidos en Laudio, que obliga a las empresas a invertir para mejorar el control de sus vertidos, y que tienen un plazo las empresas para adecuarse. |
| • Araztegiari dagokionez, Gobernuaren proiektuan bi aukera jaso direla: Markijana eta Basaurbe. Galdetu dute araztegiaren kokapena eta bi ibaien orientazioa kontuan | • Respecto a la depuradora, se dice que en el proyecto del Gobierno existen dos alternativas: Markijana y Basaurbe. Preguntan si esta depuradora será capaz de depurar |

| | |
|---|---|
| hartuta, ea araztegi hori gai izango den Laudioko hondakin guztiak arazteko, eta baietz erantzun da. | todos los residuos de Laudio, por su ubicación y la orientación de ambos ríos, y se contesta que sí. |
| 4. Auzoko gizon batek jakin nahi du ea aurten Fuertes farmaziaren inguruko gaztainondoak inausiko diren, zikinkeria sortzen eta gaztainen ondorioz erorikoak eragiten ari direlako. Baieztatu dutenez, zuhaitz horiek ez dira sekula inausi, Udalak esan baitzuen ezinezkoa zela. | 4. Vecino quiere conocer si este año se podarán los castaños en la zona de la Farmacia Fuertes, ya que están provocando suciedad y accidentes al pisar las castañas. Afirman que nunca se han podado esos árboles porque desde el Ayuntamiento se les dijo que esos árboles no se pueden podar. |
| • Udaletik erantzun zaio aztertuko dela ea inausi daitezkeen, eta, hala bada, noiz. | • Desde el Ayuntamiento se dice que se mirará si pueden podarse y cuándo. |
| 5. Galdetu dute zer egingo den Goikogane kalean zelaia zeharkatzeko instalatu ziren lauzekin. | 5. En la calle Goikogane, para pasar por la campa, preguntan qué se va a hacer con las losetas que se instalaron. |
| • Erantzun da hango aparkalekuak berrantolatzeko asmoa dagoela, eta, handik aurrera, parkearen antolakuntza ere berrikusi beharko dela. | • Se dice que tenemos previsto reordenar el aparcamiento en esa zona, y de ahí se tendrá que revisar también la organización del parque. |
| 6. Aparkalekuari dagokionez, Goikoganekoaz gain, erantsi du badaudela bi norabideko beste zenbait kale estu. Galdetu dute ea auzoko zirkulazio orokorra ukituko den eta baieztatu dute, oro har, herria ez zela ondo diseinatu. | 6. Respecto al aparcamiento, además de Goikogane, dicen que hay varias calles estrechas que tienen doble sentido. Preguntan si se planteará la circulación en general en el barrio y apuntan a que, en general, el pueblo está mal diseñado. |
| • Erantzun HMJP prestatzen ari direla, eta horren bidez aztertuko dela nola funtzionatzen duen mugikortasunak udalerrian. Plan horren bidez aztertuko dira aipatutako hiru kaleak ere. | • Se contesta que vamos a trabajar en la elaboración de un PMUS, que analizará cómo funciona la movilidad en el municipio, y en el marco de dicho Plan se analizarán las diferentes calles. |
| 7. Auzoko gizon batek Goikogane kaleari buruz esan du aurreko legegintzaldietan norabide bakarra uztea planteatu zela, baina ez zela ideia ona izango. | 7. Vecino respecto a calle Goikogane dice que en legislaturas anteriores ya se planteó hacer sentido único, pero que no sería buena idea ponerla de único sentido. |
| • Udalak esan du ez dela hori egiten ari den planteamendua, inondik inora. | • El Ayuntamiento dice que en ningún caso es ese el planteamiento que se está realizando. |
| 8. Adierazi denez, Txarlazo kalean asfaltoa hondoratu egin da eta eta galdetu dute konponduko ote den, oso presakotzat jo baitute. | 8. En la calle Txarlazo dicen que el asfalto se ha hundido y pregunta si se arreglará, ya que se considera muy urgente. |
| • Udalak ez zuen horren berri, baina egoera aztertuko da. | • Desde el Ayuntamiento no había constancia, se mirará cuál es la situación. |
| 9. Auzoko batek galdetu du ea umeak ikastetxean uztera doan auto kopurua mugatzerik badagoen. Proposatu du autobus bat jartzea umeak eramateko. | 9. Vecino propone si se puede limitar el número de coches que vienen al colegio para traer a los niños y niñas. Propone si podría ponerse un autobús para subirles. |
| • Erantzun da oso ordutegi zehatzean gertatzen dela hori, ikastetxera sartzean, eta zaila ikusten dela autobus zerbitzua martxan ipintzea. Esan denez, hala ere, hiri-autobus | • Se dice que es un tema que ocurre en un espacio de tiempo muy puntual a la hora de entrada al colegio, y se ve complicado poner en marcha un Autobús. Se comenta |

| | |
|---|---|
| bat martxan ipintzeko aukera aztertzen ari dira. | que, aún así, nos estamos planteando analizar la viabilidad de poner en marcha un autobús urbano. |
| 10. Aurrekoari dagokionez, planteatu da udaltzainak bidaltzea goizez hango trafikoa erregulatzera, La Milagrosan edo Ikastolan egiten den bezala. | 10. Respecto a lo anterior, plantean si podría ponerse a la Policía Local por las mañanas a regular el tráfico, como en La Milagrosa o en la Ikastola. |
| • Erantzun zaio udaltzainak ez daudela inongo ikastetxetan, ez bada puntualki. | • Se contesta que de manera continua no está la Policía Local en ningún colegio, que de forma puntual puede ser. |
| 11. Zubikoko pasabideaz galdetu da; auzokideek jakin nahi dute zabalago egingo ote den, oinez erdigunera joateko bi aukera baino ez dutelako, eta horietako batean ur-isuri etengabeak daudelako. | 11. Se pregunta, sobre el pasadizo de Zubiko, si se plantea hacerlo más ancho, ya que tienen solo dos opciones peatonales para ir al centro y en uno de ellos hay constantes. filtraciones de agua. |
| • Igarobideak ura ponpatzeko sistema duela adierazi da, eta, printzipioz ondo funtzionatzen duela. Dena dela, akatsen bat gerta zitekeen. | • Se dice que hay un sistema de bombeo en el pasadizo, que a priori funciona bien. Ha podido dar algún fallo puntual. |
| 12. Halaber, galdetu dute auzoko kaleren batean urbanizazioa hobetzeko edo berriz asfaltatzeko asmorik ote dagoen galdetu dute. Azpimarratu dute kale batzuetan etxabeak daudela eta itoginak sortzen direla; hori dela eta, kaleetan sartzen diren kamioien pisua mugatzea proposatu dute, erdigunea Kamaraka kalean ipinita. Kale horretan laginak hartu zirela adierazi da. | 12. Preguntan si se tiene pensado asfaltar o mejorar la urbanización de alguna de las calles del barrio. Destacan que en algunas calles existen lonjas debajo y se producen filtraciones; por ello, proponen poner un tope al peso de los camiones que entran en las calles, con foco en la calle Kamaraka. En dicha calle, dice que se hicieron unas catas. |
| • Erantzun gisa esan da udalerri osorako asfaltatze-plana lantzen ari direla, datozen urteotako esku-hartzeen lehentasunak ezartzeko. | • Se contesta que se está trabajando en un plan de asfaltados para todo el municipio, de cara a priorizar las intervenciones para los próximos años. |
| 13. Treneko obrak egin zirenean, oinez jaisteko eskailera batzuk ipini ziren, baita edukiontziak ere. Erantsi dute ez dagoela zebrabiderik. | 13. Cuando se hizo la obra del tren, se pusieron unas escaleras para bajar a pie y los contenedores. Comentan que no hay paso de cebra. |
| • Aipatu egin da beste zeharbide bat dagoela 40 metro baino gutxiagora, eta beste bat ipintzekotan, bihurgunean ipini beharko litzatekeela, horrek ekar lezakeen arriskuarekin. | • Se comenta que hay otro paso de cebra a menos de 40 metros, y en caso de poner otro sería en zona de curva, lo cual podría ser peligroso. |
| 14. Auzoko emakume batek dio Jesús Guridi oso egoera txarrean dagoela eta urte askoan ez dela ezer egin han. Eskatu egin du lekua bisita dezatela egoera zein den ikusteko. | 14 Vecina dice que Jesús Guridi está en muy mal estado y que hace muchos años que no se ha hecho ninguna intervención allí. Solicita que se visite el lugar para conocer el estado. |
| • Lekua ikuskatuko dela erantzun zaio. | • Se dice que se analizará el espacio. |
| 15. Auzoko gizon batek galdetu du zertan den Latiorro eta irin-fabrika lotzen dituen zubia. | 15. Vecino pregunta por el proyecto de puente que une Latiorro con la zona de la fábrica de harinas. |
| • Erantzun egin da proiektua HAPO-ren | • Se responde que dicho proyecto |

| | |
|---|---|
| aurrerapenetik datorrela, eta onetsi ere ez dela egin. | proviene del avance del PGOU, y que ni si quiera es un documento aprobado. |
| 16. Bitorikako harrobitik behera erortzen ziren harkaitzez galdetu dute, oso arriskutsua baita. | 16. Preguntan por las rocas que caían de la Cantera de Bitorika, ya que consideran que es muy peligroso. |
| • Erantzun da 300.000 euro baino gehiago bideratu direla aurten harrobiari eusteko presako lanak egiteko. Gainera, hodi biltzailerako obretatik lurra hara eramatea planteatu da, eta, horren truke, enpresak harrobian hobetze-lanak egitea. | • Se responde que este año se han habilitado más de 300.000 euros para realizar actuaciones de urgencia para contener la Cantera. Además, en las propias obras del colector se plantea que se lleve la tierra allí y, a cambio, que la empresa ejecute obras de mejora en la Cantera. |
| 17. Galdetu dute ea tren-geltokiko irisgarritasuna hobetzen ari den. | 17. Preguntan si se está solucionando la accesibilidad a la estación de tren. |
| • Erantzun da ADIF-ek proiektua aurkeztu duela eskailerak gainditzeko. Auzokideek planteatu dute eraitsi den zubia zegoen lekua erabiltzea irisgarritasuna hobetzeko, baina erantzun zaie ADIF-ek ez duela hori erabili nahi. | • Se contesta que ADIF ha presentado un proyecto para instalar un ascensor para salvar las escaleras. Vecinos plantean que pueda utilizarse la zona donde estaba el puente que se ha derribado para garantizar la accesibilidad, pero se contesta que ADIF no quiere realizarlo por esa zona. |
| 18. Hilerriari dagokionez, auzoko emakume batek esan du interesgarria izan daitekeela errautsak askatzeko espazio bat ipintzea, gaur egun dagoena baino politagoa. | 18 Respecto al cementerio, una vecina comenta que sería interesante poner un espacio para esparcir las cenizas, algo que sea más bonito que lo actual. |
| • Udalak uste du oso proposamen interesgarria dela eta esan dute aztertuko dutela.Horrez gain, esan dute indarrean dagoen ordenantza berrikusi beharra dagoela. | • El Ayuntamiento considera que es una propuesta muy interesante y que se analizará, diciendo que además es necesario revisar la Ordenanza en vigor. |
| 19. Auzoko gizon batek esan du Zumalakarregiko semaforoak horiz ipintzen direla gauez, baina "Aurora Polar" ondokoa ez dela ipintzen. Gainera, oinezkoen igarobideetan argi gehiago ipintzeko eskatu du, seguruagoak izan daitezen. | 19 Vecino comenta que los semáforos de Zumalakarregi se ponen en ámbar por la noche, pero el de "Aurora Polar" no. Además, pide poner más iluminación en los pasos de peatones, para hacerlos más seguros. |
| • Erantzun zaio semaforo hori ere horiz egon beharko lukeela, eta begiratuko dela zer gertatzen den. Gainera, gehitu da zebrabideetako argiztapena hobetzen jarraituko dela, dagoeneko hasi denari jarraipena emateko. | • Se contesta que ese semáforo debería estar en ámbar también, se mirará. Además, se contesta que se continuará poniendo más iluminación en los pasos de cebra, continuando con lo que ya se ha empezado a realizar. |
| 20. Auzoko emakume batek proposatu du ibaiaren bazterrean, Nerbioi kalean dagoen baranda lekuz aldatzea. | 20. Vecina propone cambiar la barandilla que está en el río, en la calle Nerbion. |
| • Apurka-apurka egingo dela erantzun zaio. | • Se dice que se irá realizando poco a poco. |
| 21. Auzoko gizon batek Apaloetarako proposatu du umeentzako parkea estaltzea. Esan duenez, 23mx16m dira neurriak, Ugartekoa baino apur bat txikiagoa da, beraz, uste du kostua ere txikiagoa izango dela. | 21. Vecino propone para Apaoleta cubrir el parque infantil. Cuenta que las dimensiones son 23mx16m, algo más pequeño que el de Ugarte, por lo que estima un coste menor. Asimismo, pide un mayor mantenimiento |

| | |
|---|---|
| Halaber, parkean mantentze-lan gehiago egitea eskatu du, gorabeherak gertatu baitira iltze eta antzekoekin. | para el parque, ya que ha habido incidentes con elementos como clavos, etc. |
| • Esan denez, umeentzako parke guztiak estaltzen joatea da asmoa. Ugartekoaren kostua 180.000 eurokoa izan zen gutxi gorabehera eta Apaloetakoak antzeko kostua izango luke. | • Se cuenta que la intención es ir cubriendo todos los parques infantiles. La de Ugarte costó 180.000 euros aproximadamente, y se estima que el de Apaoleta tendría un coste parecido. |
| 22. Jaietan gastatzen den aurrekontuaz galdetu dute, uste baitute jai gehiegi dagoela. | 22. Preguntan por el presupuesto que se gasta en fiestas, ya que consideran que hay demasiadas fiestas. |
| • Erantzun zaie aurrekontu bat dagoela Udalak antolatzen dituen Laudioko jaietarako, eta auzoetako jaietako batzorde desberdinentzako beste aurrekontu bat. | • Se contesta que hay un presupuesto para las fiestas de Llodio, que organiza el Ayuntamiento, y hay presupuesto para las diferentes Comisiones de fiestas que organizan las fiestas en los barrios. |
| 23. Apaloetari dagokionez, adierazi da sasitza handiak daudela beherantz doan errekatxoan, eta, horrez gain, sugeak eta arratoiak ere. | 23. Respecto a Apaoleta, se apunta a que hay muchas zarzas que están creciendo en el regato que baja, donde hay culebras y ratas. |
| • Zonaldea garbitzeko zer egin daitekeen aztertuko da. | • Se mirará qué se puede hacer para limpiar esa zona. |
| 24. Hilerriko horman, Salazarreko eskola zaharraren aldekoan, arratoi asko daude. Udalak adar batzuk moztu zituen. | 24. En la tapia del cementerio, la que da hacia la antigua escuela de Salazar, hay muchas ratas. Desde el Ayuntamiento se cortaron algunas ramas. |
| • Erantzun da espazio pribatua dela eta espazioaren titularrari bat bidaliko zaiola. Zati publikoan zer egin daitekeen aztertuko da. | • Se contesta que es un espacio privado y se le enviará una la persona titular del espacio. En la parte pública, se analizará qué se puede hacer. |
| 25. Arratoiak ikusten direnean esku hartzeko protokolo bat ote dagoen galdetu dute. | 25. Preguntan si hay un protocolo de actuación en caso de que se vean ratas. |
| • Erantzun da arratoien aurka egiteko enpresa bat dagoela kontratatuta; Udalari abisua eman behar zaio haiei jakinarazi diezaien. | • Se contesta que hay una empresa contratada para la desratización; hay que avisar al Ayuntamiento para que dé traslado. |
| 26. Geltokirako bidean dauden kartelei dagokienez, esan dute batzuetan ez direla kentzen eta denbora luzea ematen dutela han ipinita. | 26. Respecto a los carteles en el túnel que cruza a la estación, comentan que a veces no se retiran y están colocados mucho tiempo. |
| • Esan da ikusi hala kentzen direla, eta lan egingo dela zehazteko zer espazio den egokia kartelak ipintzeko eta esku hartzeko protokoloa. | • Se comenta que se retiran cuando se ven, y que se va a trabajar en definir espacios donde se puedan poner carteles y el protocolo de actuación. |
| 27. Auzoko gizon batek esan du saltoki asko itxita daudela eta esku-hartze estetikoa egin dela lokaletan. Halaber, jakinarazi da fatxada asko egoera txarrean daudela eta hori konpontzeko gairen bat aukeratu eta horma-irudiak margotu litezkeela. | 27. Vecino comenta que existen muchos comercios cerrados y que se ha hecho una intervención estética en los locales. Se ha dado cuenta de que muchas fachadas están en mal estado y proponen un proyecto de muralismo con alguna temática. |

| | |
|---|---|
| • Udalerrirako horma-irudien proiektu bat lantzen ari da Udala, eta, horrez gain, beste proiektu bat martxan dago José Arrúeren biniloak ipintzeko fatxada desberdinetan. | • Se dice que estamos trabajando en un proyecto de muralismo para el municipio, además de otro proyecto con vinilos de José Arrúe para colocar en diferentes fachadas. |
| 28. Auzoko emakume batek esan du fatxada batzuetan iragarkiak edo kartelak ipintzen dituztela, baina ez zaiela zigorrik jartzen enpresa iragarleei. | 28. Vecina comenta que en determinadas fachadas se ponen anuncios o carteles y no se retiran ni se sanciona a las empresas anunciadoras. |
| • Erantzun da badela gaia arautzeko ordenantza bat. | • Se comenta que existe una ordenanza, que regula este asunto. |
| 29. Auzoko gizon batek galdetu du ea oraindik mahai gainean dagoen URA Agentziarekin negoziatzeko aukera kolesterolaren ibilbidean komunak ipintzeko. | 29. Vecino pregunta si se sigue valorando la posibilidad de negociar con URA para instalar servicios en el paseo del colesterol. |
| • Erantzun da saiatu zirela, baina URA Agentziak ez zuela baimenik eman. Arazoa da eremu horretan ez dagoela hodi biltzailerik, eta horrek zaildu egiten duela komunak instalatzeko. Komun kimikoa instalatzea planteatu dute. | • Se contesta que se intentó y URA no lo permitió. Hay un problema de que en esa zona no hay colector, lo que dificulta instalar servicios. Plantean que sea un baño químico. |
| 30. Auzoko emakume batek galdetu du zer egin behar den auzoko zinegotziarekin harremanetan jartzeko. | 30. Vecina pregunta sobre cómo se puede contactar con la Concejala de Barrio además de por mail. |
| • Auzoko zinegotziak txartel pertsonala eman dio galdera egin duen auzokideari, eta esan du bere telefono zenbakia udal webgunean dagoela ikusgai. | • La Concejala de barrio entrega su tarjeta a la vecina que lo pregunta, y dice que su teléfono está publicado en la web municipal. |

Alkate-udalburuak bukatutzat jo du batzarra 20:00ak direnean. / *Cuando son las 20:00, el alcalde-presidente da por finalizada la asamblea.*